

IZPIEN TXOKOAREN jarraibideak

2026-2027 ikasturtea

Irailaren 25etik ekainaren 25era

► Ordutegia

Egunero	9:30 – 20:30
---------	--------------

► Txartelak itzultzeko epea:

Izpien txokoa ez duzula erabiliko erabaki bezain pronto eta
beti ere, **2027ko ekainak 28 baino lehen.**

Zer zerbitzu eskaintzen da?

Agirre-etxeberriko areto handian
dagoen Izpien txokoa erabiltzeko aukera.
Bertan, seme-alabak eta familiak
jolasteko hainbat txoko izango dituzte.

Noiz erabil daiteke?

2026ko irailaren 25etik 2027ko ekainaren 25era arte.

Zein da ordutegia?

Egunero, 9:30etik 20:30era.

Nortzuk erabil dezakete Izpien txokoa?

Herrian erroldatuta dauden
0-3 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiak.

Bananduta dauden familien kasuan,
bi txartela izateko aukera izango dute.

Sarbidea nola arautuko da?

Sarbidea txartela bidez arautuko da.

Zer egin behar dut txartela eskuratzeko?

Txartela eskuratzeko eskaera orria bete behar da,
udalaren webguneko egoitza elektronikoan aurkeztuta
edo Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (07:30-15:00).

Non eta noiz lortu dezaket txartela?

Egindako eskaera onartu ondoren, abisu bat jasoko duzu
Izpien txokoaren txartela Kultur Etxeko harreraren jasotzeko.

Zerbait ordaindu behar da?

Ez, txartela doakoa da.

Baimendutako epea amaitzean **txartela itzuli beharko duzu.**

Baita zerbitzua gehiago erabili behar ez baduzu ere,
nahiz eta denboraldia amaitu gabe egon.

Txartela galdu edo itzultzen ez bada,

5 euro ordaindu beharko dituzu.

Txartela izanda, tokia izango dut?

Txartelarekin finkatutako egunetan eta ordutegian
erabiltzeko aukera izango duzu.

Toki libre badago gera zaitezke, bestela ez.

Txartela utz diezaioket beste familia bati?

Ez, familia eskatzaileak bakarrik erabili dezake.

Ezin du beste familia batek erabili.

Txartelik ez baduzu, ezin duzu txoko hau erabili.

Txartela galtzen badut, zer egin behar dut?

Abisua lehenbailehen eman beharko duzu

Kultur Etxeko harreraren sarrera baimena baliogabetzeko.

Ondoren **5 euro** ordaindu beharko dituzu,
eta beste bat atera beharko duzu.

Txartela erabiltzen ez badut, zer egin behar dut?

Txartela itzuli beharko duzu

eta Kultur Etxeko harreraren entregatu beharko duzu.

Izpien txokoaren azken erabiltzailea banaiz, zer egin behar dut?

Gauzak txukun utzi eta atea itxi

Txartelekin arazoren bat badago, zer egin behar dut?


Kultur Etxeko Harrerara joan zaitez

edo isanz@legazpi.eus e-postara mezu bat bidal ezazu,

zein arazo daukazu azalduz.

JARRAIBIDEAK

- Izpien txokoa erabili ahal izateko ezinbestekoa da sarbiderako **doako familia txartela** eskuratzea. Txartelik ez baduzu, ezingo duzu izpien txokoa erabili.
- **Erabilera guztiak erregistratu** behar dira. Sartu eta gero, **atea itxi behar da**; horrela hurrengo erabiltzaileak bere sarrera erregistratu ahalko du.
- **Erabiltzaileak**: 0-3 urte bitarteko haurrak duten familiak.
- **Haurrak ezin dira bakarrik utzi.**
- **Anai-arreba zaharragoak ez dira lehentasunezko hartzaileak** eta bakarrik bazaudete ez da gunea erabiltzeko arazorik egongo, baina beti erantzukizunez jokatzuz eta gainerako erabiltzaileak errespetatuz.
- Haurren **karroak sarreran** utzi behar dira.
- **Ezin dira etxetik jostailuak ekarri.**
- **Berokia eta oinetakoak eskailera azpiko gunean** utzi behar dira eta balioa duten gauzak ez utzi bertan, udala ez da horren kargu egingo.
- Koltxoneta gainean ibiltzeko **oinetakoak kendu** behar dira.
- **Gunea garbi** mantentzearen ardura familia erabiltzaileei dagokie.
- **Ezin da jan**. Ezin da erre.
- **Mugikorrak itzali edo isiltasunen jarri** behar dira. Hitz egin behar baduzu, kalera atera zaitez.
- Gunea guztiona da, denok daukagu eskubidea hau erabiltzeko; beraz, denbora bat eman baduzu bertan eta erabiltzaile gehiago zain badaude, **erantzukizunez** jokatu eta besteei tokia utz iezaiezu.
- Joan aurretik **dena txukun** utziko dugu.



Izpien txokoaren erabiltzeko jarraibideak
betetzen ez badira, Udalak ahalmena izango du,
behar diren neurriak hartzeko eta sarrera baimena baliogabetzeko.